

VIII piropo lehiaketa



ERMUA, 2015



Euskara saila
Departamento de euskera



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA

NAGUSIEN
MODALITATEA

Nire bizitza argitzen duen eguzkia zara.

Nire bizitzan nire Nikolas txiki izan.

Zure eztizko ezpaineek marrazten dute maite dudan irribarrerik goxoena.

Paradisua oparituko nizuke, zure muxu baten truke.

Ez pastelak, ez gominolak, ezta azukrerik ere. Zu zara nire goxokorik nahiena.

Zure begiak mapa, zure ahoa gurutze gorri handi eta distiratsua... eta zure bihotza lortutako altxorrik handiena!

Nirekin zaudenean ahoa ur egiten zait. Baina ez zaudenean begiak dira urtuta daudenak.

Ba al dakizu zer den nire begiradaren gauzarik ederrena? Zure isla distiratsua!

Zu eguzkia izango bazina eta ni ilargia izango banintz... a zer nolako egunsentia sortuko genuke elkarrekin!!!

Zeruari deiarka nabil zu jauziko zaren zain.

Amodioa itsasoa balitz, zu nire olatuak izango zinateke.

Zu ikustean nire gauak izarren hautsaz betetzen zaizkit

Gure maitasuna itsasoa bezala izatea nahiko nuke.
Hasiera ikustea baina ez amaiera.

Irribarre iradokitzailea duzu. Begirada erakargarria
baita, arrazoiarekin hainbat jende zutaz
maitemintzea.

"Udazkenean haize hotzak laztantzen nauenean
sortzen didan hotzikara, zure muxu goxo batek
sortzen didanaren parekoa da, baina honek, aldiz,
badu bere alde ona, honek nire barnean pizten baitu
sugarra".

Eztia bezain goxoa zera eta osorik jango
zintuzkedan

Ez nizuke hitz egiten ere utziko, zure ahoa muxuz
beteko bainuke"

Urteko urtaro guztiak gustatzen zaizkidanez, zu
zaitut gustuko; udaberriko freskotasuna, eta
alaitasuna; udako eguzkia eta argitasuna;
udazkeneko aldaketa berritzaileak; eta neguko euria
eta haizea nere azalean.

Gizakiak duen gauzarik ederrena bere askatasuna,
baina zoriontsu izango nintzateke zurekin
korapilatuta.

Zu nere zauriak sendatzen dituzun poztasuna zara.

Zer da denbora? Zurekin pasatzea gustatuko
litzaidakeen uneoroa.

Negar egiten dudanean ere, pozik nago, zu
aldamenean baitzaitut.

Zu nere zorionaren sua pizten duzun poxpoloa zara.

Ederra hitzaren definizioa labur gelditzen da zu
ezagutzean.

Nere olerkietan zu zara nere inspirazioa, zu baitzara,
zerua, alaitasuna eta maitasuna.

Zu zara nire ura, eta badakizu ur gabe ezin dela bizi.

Zer da maitasuna? Zu alboan edukitzea.

Zure irri eta farra, nere irrifarra.

Bizipoza=zu.

Zu zara nire bihotza martxan jartzen duten tantak.

Hiztegia zu zaren hitz politekin osatu zuten.

Zu euriak bere tantetan dakarren freskotasuna zara.

Zure begiak, udazken koloretsua baino ederragoak
dira!!

Lo ondo egiten dut zuri esker, zurekin amesten
dudalako.

Lotara noa zurekin amets egiteko.

Tristura hitza ez da existitzen zure ondoan.

Zu zelaian dagoen lorerik preziatuena eta ederrena zara.

Zertarako ilargira joan, zerua ondoan edukita.

Zurekin egotearren, ordua 120 minututakoa izatea nahiko nuke.

Bizitza bidai bakarra delako, zeren bestela!!! Zurekin egotearren bonoa erosiko nuke!!

...Izarren distira bezain bizia, zure begien argia...

Zure musu piztia, nire gorputzaren berotasun guztia.

Nire bihotzeko azukre koskorra; zure ezpain gozoak jan nahi ditut, nire bizitza gozatzeko”

Maite zaitut, ez zu izateagatik, baizik eta zurekin egoten naizenean nor naizelako.

Zu bai zarela nire zorakizun zentsuduna

Bai aurreratuta dagoen zientzia, bonboiak ibiltzen dute eta!!!

Zu bezalako bonboirik egiteko, bai gozogile fina zure ama.

Zergatik da itsasoa gazia? Zu daukazulako gozokizun guztia.

Ah! zelako irriparra, hura da nire lparra, gidatzen nauen izarra.

Amildegietako lamia,
Ote arteko lilia,
Ekaitza baretzen duzun ortzia
Iluna argituz zure irria
Babesten nauen itsas-argia
Musuka nahi nuke zure ezpain-mamiak
Hurbil zauzkat, ukitu zaitut ia!

Zein izan zinen, zein zaren eta izango zarana...
Neure alboan behar dudan ametssetako dama

GAZTEEN
MODALITATEA

Poema bat idatziko nizuke Sarrionandia banintz,
noble bat, Atxagarenak modukoak, hain zarelako
polita.

Utzi penak, Ane, piztu

Zu euskaraz entzutea zein polita den jakingo
bazenu...

Dantzan zaudenean konturatzen naiz munduan zure
eskutan duzula, neska

Zuhaitzetako hostoen hotsa zara, soinu guztien
artean ederrena

Zure aurpegiko azala, itsasbeherako olatuak bezain
leuna.

Altxorrik preziatuenean zaitut harri distiratsuen.
Zure begien distirekin esnatzen nauzu egunero.
Akelarreko muxuak, zu bezalako sorginen muxu
goxoena keta maitagarrienak

Nahikoa daukat zure irribarre eta begirada batekin;
nire bihotzeko taupadak martxan jartzeko.

Dastatu egin zintudan, gozokia zinela pentsatuz;
irentsi egin zintudan, azukrea zinela konturatuz.

Itsasoko ura ez da gai izan nire barnean utzi dituzun
oinatzak ezabatzeko. Baina zure begietako disdira
gai izan da niriitsu uzteko.

TXIKIEN

MODALITATEA

Udaberria baino ederragoa eta loretsuagoa zara.

Zu zara nire kuttuna

Ikusten zaitudanean nire bihotza ehunera jartzen da.

Zara hain polita, baino ederragoa denean

Ni zugandik urruntzen naizenean nire maitasun argia itzaltzen da, baina hurbil banago pizten da mila egun bezala.

Zu zara ni lotara joatean gaua argitzen duen distira.

Argia itzaltzen bada zu zara ikusten dudak bakarra.

Maite zaitut mendizaleak mendia maite duen bezala.

Zauri bat duzunean min dut bihotzean.

Eguzkia eta izarra baino gehiago egiten duzu distira.

Nire begiak ikusten duten bakarra zure distira eta alaitasuna da.

Ni beti nago zuri begira, beldur guztiak saiez eta alaitasuna sentitzeko.

Argia joaten denean zu zara argia ematen didan kandela.

Bizitza bideojoko baten berdina da, inoiz ez dakit nola bukatuko den, baina zurekin nagoenean, ez dut nahi inoiz bukatu.

Zu zara ilunabarreko argi distiratsua!

Nora zoaz hain polit? Begi horiekin zuk nire bihotzean egin duzu klik.

Zu ikustean tximeletak hasten dira dantzan nire sabelean.

Badira bi aste irribarre hori ez dudala ahazten.

Itsasoa zabala, geure maitasuna bezala.

Izarrak baino distiratsuagoa, loreak baino politagoa eta azukrea baino goxoagoa zara.

Zu zara haizea modukoa zara, batzuetan

Zu oso gozoa zara gominolak bezala

ikusi ez arren beti hor egoten

Zu zara nire neska, zu gabe ezingo nuke ezer egin

Zu zara nire ipuinetako printze urdina

Zu zara nire neska

Gozokiak baino gozoagoa zara

Horren distiratsua zara, nire azukre koskorduna zara

Mundua eta zure artean aukeratu beharko banu, zu aukeratuko zintuzket zu zarelako nire mundua

Zure begi urdinek zerua urdintzen dute

Zure edertasunak ez du mugarik

Udaberriko arrosak baino distira gehiago duzu

Zure begiek itsasoko perlen distira dute

Ain distiratsua zara eguzki bat bezala

Zure begiak altxorrak dira

Gustatuko litzaidake lapurra izatea zure bihotza
lapurtzeko

Ni naiz zure mendia eta zu nire zuhaitzak

Zergatik da itsasoa gazia? Zuk daukazulako
gozotasun guzia!

Zure bihotza aztertuko banu, aingeruak aterako
lirateke

Udaberriko eguzkia baino politagoa zara

Zure irria ikusi nahi dut, gaueko izar guztiak itzali arte

Ez zaitut ahaztuko , ez orain ez bihar

Zure bihotza mundua bezain ederra da

Zure bihotza mundua bezalakoa da

Oso polita zara itsasoa bezala

Horren distiratsua zara itsasoa bezala

Horren distiratsua zara zure begien kolorea bezala

Katarroa izan nahi nuke zure bularretan sartzeko

Horren gozoa zara txokolatea bezala

Zu zara nire bihotzeko zatirik handiena

Errealekoa izan arren beti izango zara nire bihotzean
zuri gorria

Birikia izan nahi nuke zure bihotzetik hurbil egoteko

Azkenean zurekin banago dena ondo aterako da, ez
bada ondo ateratzen ez da bukaera

Zure begiak baloiak balira ez litzateke atezainik
egongo zure golak gelditzeko.

Zu robotak baino modernoagoa zara

Zure musuak mila euro baino gehiago balio dute

Guapa eta argia , zu zara nire ipuinetako bizia

Batzuk mundu berri bat bilatzen dute, beste batzuk
ostera sortu egiten dute

A” planak ez badizu funtzionatzen , 26 letra gehiago
dituzu

Itsu geratu naiz zure begiak ikustean

Mundua eta zure artan aukeratu beharko banu, zu
aukeratuko zintuzket, zu nire mundua zarelako.

Zuk munduko bihotz handiena eta gozoena duzu

Mundua lehertuko nuke zu askatzeko

Niretzat zu zara munduko altxorrik handiena.

Zure distirak mundu osoa argitzen du

Ilargia baino politagoa zara beti bezala.

Zu zara udaberria baino politago

Zu nire ama baino politagoa zara.

Ni zurekin betirako egongo naiz.

Zu bai nire ilargia.

Zure begiak ilargia bezain politak dira

Zu zara nire bihotzaren erregea.

Itsasoko olatuak zu bezain politak dira.

Zure begiak liluragarriak dira

Zu zara kolean futbola baino gehiago gustatzen didazun bakarra.

Zure bihotzaren taupada, nire bizitzaren musika.

Atzo baino gehiago maite zaitut baina bihar baino gutxiago.

Udaberria bera baino ederrago zatoz.

Munduari buelta emango ninteke helmuga zeu
izango bazina.

Hostoak zuhaitzetan, belarra mendian zu zara ori
nire maitea.

Zu zara piroporik handiena.

Zu zara nire bihotzeko zatirik handiena.

Ni zuhaitza izango banintzen zu izango zinen
hostoak.

Gaua islatzen duenean izarra zara.

Gozokiak baino gozoagoa zara

Arrosak baino politago zara.

Zu bai nire bihotzeko giltza.

Zu bai nire eguzkia.

Zu bai nire ilargia.

Zu bai nire bihotza.

Txokolatezko tanta bat baino goxoagoa zara.

Zure ahotsa mila aingeruen ahotsa baino politagoa
da.

Mila arroza baino hobeto usaintzen duzu.

Ez ipini eguzkian bonboiak ezin direlako ipini.

Oso polita zara

Edozein sarietara apuntatuko nuke zu saria bazara.

Gozoki bat baino goxoagoa zara.

Ni eguzkia, zu euria, elkartzen garenean ostadarra agertzen da.

Euria badago eta kalera ateratzen bazara eguzkia ateratzen da.

Zu zara nire bihotzaren azken odol alatua.

Zu zara nire bihotzaren zatia.

Zu zara nire bizitzaren zatirik handiena

Zure begiak ilargi betea baino politagoa zara..

Zure begiak eguzkia baino distiratsuagoak dira.

Zu zara nire amets goxoena.

Zu zara gauean eta egunean argitzen digun argi eder hori.

Negua joan negua etorri baina zuk inoiz ez zoaz nire bihotzetik.

Oso ederra zara, nire maitemina itsasoa baino handiagoa da.

Leku zatar batera heltzen bazara dena polit bihurtzen duzu.

Zu bai izozki freskoa

Gauean zure begiak izarrak baino politagoak dira.

Lapur bat bihurtu zara nire bihotza lapurtzeagatik.

Loreak mendian, perretxikoak basoan eta zu bezalako mutila nire bihotzean

OSO EDERRA ZARA, IZARRAK BEZALA.

LOREAK BAINO POLITAGO, TXOKOLATEA BAINO GOXOAGO, ZU BETI NIRE BIHOTZEAN, JAIO ETA BIZI ORDUKO.

NIRE MUNDUKO EGUZKIA ZARA, NIRI EGUNAK ALAITZEN DIZKIDAZU

MAITE ZAITEZ ETA LAGUNDU ZAITEZ

NOR IZANGO ZEN PIRATA ZURE ALTXORRAN SARTZEKO.

OSO POLITA ZARA, KOLOREAK BEZALA.

LOREA BEZAIN POLITA, UMEA BAINO ALAIAGO ETA ZURE IRIBARRE HANDIA

UDABERRIKO LOREAK IKUSTEAN, ZURE AURPEGIA IKUSTEN DUT

TULIPANA EDO MARGARITA... BERDIN DU. LORE BAT BEZALA POLITA ZARA ZU.

ZURI BEGIRATZEAN, TOMATEA BAINO
GORRIAGO JARTZEN NAIZ.

UDABERRIA BERA BAINO EDERRAGO ZATOZ.

AGIAN MUNDUARENTZAT EZ ZARA INOR, BAINA
NIRETZAKO MUNDUA ZARA.

ZER NAIZ NI ZU GABE?

OLERKI LABURRENAREN BERTSORIK
POLITENAK MAITE ZAITUT DIRA.

ZURE BEGIEN DISDIRA EGUZKIARENA BAINO
POLITAGOA DA.

LOREAK BAINO POLITAGOA ZARA.

ZURE BEGIAK ITSASOA BAINO POLITAGOAK
DIRA.

ZUK IZAR GUZTIAK BAINO GEHIAGO
DISTIRATZEN DUZU.

PIRULETA BAT BAINO AZKARRAGO JANGO
ZINTUDAN.

MUNDUKO KOPA IRABAZIKO NUKE ZU SARIA
IZANGO BAZINA.

ZU ETA NI BATERA BADAKIZU LARROSA BAINO
POLITAGOAK GARELA.

EGURALDI MAPAN AGERTUKO BAZINA ZU
EGUZKIA IZANGO ZINATEKE.

EGUZKIRA BEGIRATZEN DUDANEAN ZURE
AURPEGIA AGERTZEN DA.

ZU EGUZKIA ETA NI EURIA, BOK ELKARTZEN
GARENEAN OSTADARRA BIHURTZEN GARA.

ZURE BEGIEK BIHOTZA MINTZEN DIDATE.

ZUGAITIK EDOZER GAUZA EGINGO NUKE.

ZU EGUZKIA BAINO EDERRAGOA ZARA.

ZUREKIN NAGOENEAN NIRE BEGIAK
MAITEMINTZEN DIRA.

UDABERRIAN HAZTEN DIREN LOREAK BAINO
POLITAGOA ZARA.

AINGERUAK BEZAIN POLITA ZARA.

ZERUTIK JAUZI ZARA, AINGERU BAT ZARELAKO.

ZU NIRE TOSTADAKO MERMELADA ZARA.

NI GORRA NINTZEN ZURE HITZAK ENTZUN
AURRETIK.

NI ITSUA NINTZEN ZU IKUSI ARTE.

ZU NIRE BIHOTZEKO KUTTUNA ZARA.

ZU IKUSTERAKOAN BEGIEK DISDIRA EGITEN
DIDATE.

TXOKOLATEA BAINO GOZOAGOA ZARA.

ZUGAITIK MUNDUARI BUELTA BAT BAINO
GEHIAGO EMANGO NIOKE, ZU MUNDUA BAINO
GEHIAGO ZARELAKE.

ZURI BIHOTZA LAPURTUKO NIZUKE

EZIN BAZAITUT IKUSI ZERTARAKO BEGIAK?